

### 3. KASU PRAKTIKOA

Pertsona gazte bati aholku eman zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan. Pertsona horrek ez dauka inolako loturarik sektorearekin, eta GAZTENEK programaren barruan, lehenengo instalaziorako balorazio batzordeak onartu egin dio enpresa-plana. Gazte hori alta emanda dago Nekazarien Gizarte Segurantzari.

Bizkaiko Foru Aldundiaren lurren bankuko 8 ha-ko belardia hartu du errentan, Fruiz udalerrian. Hauek dira belardiaren ezaugarriak: hego-mendebaldeko orientazioa, batez besteko malda % 14 eta altitua 120 metro. Mahastiak landatu nahi ditu txakolin zuria egiteko, ekoizpen integratuko sisteman eta Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deiturari helduta, horretarako behar diren baimenak baititu.

Lurraren ezaugarri kimiko eta fisikoak hauek dira:

Testura	Frankoa, harea-buztintsua.
Ph-a	7,02
C/N erlazioa	7,13
Mat. organiko oxidagarria	% 2,33
Nitrogeno osoa	% 0,19
Potasio asimilagarria	85 ppm
Fosforo asimilagarria (Olsen)	70.77 ppm
Kaltzio asimilagarria	9,39 meq/100g
Magnesio asimilagarria	0,86 meq/100g

1.- Honako hau egin behar duzu: Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritzako ustiatzietarako laguntzak arautzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 13ko 175/2016 Foru Dekretuaren arabera, lehenengo instalaziorako laguntza, prima bakar gisa, kalkulatu, enuntziatuaren edukia eta baldintza hauek kontuan hartuta:

8 ha-ko azaleraren urteko errentamendua.	8.000 € urtean
Jasotze topografikoaren gastuak,	2.5000 €
Lurzorua prestatzeko lanak,	24.000 €
Landatzeko eskubideak, 4000€/ha	32.000 €
Landatzeko gastuak	30.000 €

2 puntu

2.- Honako hauek kalkulatu behar dituzu: norgehiagokarako puntuazioa eta mahastiak mantentzeko kabinadun traktore bat erosteko diru-laguntzaren gutxi gorabeherako zenbatekoa. 90.680 euroko (gehi BEZa) aurrekontua eta 110 CV-ko potentzia dauka.

**puntu 1**

3.- Laguntza hauen zenbatekoa kalkulatu behar duzu: mendi-eremuetako eta mendi-eremuak ez diren baina muga natural nabarmenak dituzten eremuetako zailtasun naturalak konpentsatzeko laguntzak. Enunziationaren edukia eta baldintza hauek hartu behar dituzu kontuan: ustiatetik eskualdeko errepidera dagoen tartea: 1,2 km; ekonomikoki titularraren mendean bizi diren pertsonen kopurua: 3 (titularra barne).

**puntu 1**

4.- Nekazaritza, ingurumen eta klimaren arloko laguntzak kalkulatu.

**puntu 1**

5.- Abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren laguntzak jasotzeko egin behar den izapidetze-prozedura deskribatu, kontuan hartuta oinarritzko ordainketarako eskubideak eskuratzeko asmoa daukala.

**puntu 1**

6.- Gazteari aholku eman gai hauetan: prestaketa-lanak, hondoko ongarritzea eta mantentzea, bariatateak hautatzea, landare-tartea, landareei eusteko sistema, labore-zikloan zehar egin behar diren lan komunak.

**puntu 1**

7.- Izurrite eta gaixotasun ohikoenak kontrolatzeko estrategiak zehaztu, ekoizpen integratuko ereduen arabera, eta tratamenduen egutegia zehaztu, egoera fenologikoen arabera.

**puntu 1**

8.- Zehaztu zer makina eta lanabes behar diren mahastiak modu egokian mantentzeko. Kontuan hartu behar duzu mahastiaren mantentzea ekoizpen integratuaren sistemaren barruan egin behar dela, eta mahats-biltzea kanpoko upategi batek egingo duela, kontratu bidez.

**puntu 1**

9.- Mahats-biltzearen antolaketa praktikoa, batez besteko ekoizpenak, mahats-biltzearen dataren inguruan erabakia hartzeko irizpideak.

**puntu 1**

### SUPUESTO PRÁCTICO 3

En la Oficinas de la Dirección de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia se asesora a una persona joven que no tiene ninguna vinculación con el sector, a la que le ha sido aprobado su Plan de Empresa en la Comisión de Valoración de Primera Instalación dentro del procedimiento GAZTENEK. Esta persona joven está dado de alta en la Seguridad Social Agraria.

Dispone en arrendamiento de 8 Ha. de prado procedente del Banco de Tierras de la Diputación Foral de Bizkaia en el municipio de Fruiz con orientación Sur Oeste, una pendiente media del 14% y una cota de 120m de altitud. Pretende realizar una plantación de viña para elaborar Txakoli blanco, en el sistema de Producción Integrada y acogida a la Denominación de Origen Bizkaia Txakolina ya que dispone de las pertinentes autorizaciones.

Las características físico químicas del suelo son:

Textura	franca, arcillo-arenosa
PH	7,02
Relacion C/N	7,13
Mat. Organica oxidable	2,33 %
Nitrogeno total	0,19 %
Potasio asimilable	85 ppm
Fosforo asimilable (Olsen)	70.77 ppm
Calcio asimilable	9,39 meq/100g
Magnesio asimilable	0,86 meq/100g

1.- De acuerdo con el DF 175/2016, de 13 de diciembre sobre ayudas a las explotaciones agrarias de Bizkia, calcular la ayuda en forma de prima única para la Primera Instalación considerando las premisas del enunciado y los siguientes condicionantes:

Arrendamiento anual de las 8 ha.	8.000€/año
Gastos de levantamiento topográfico,	2.5000€
Labores preparatorias del terreno,	24.000€
Derechos de plantación, 4000€/ha	32.000€
Gastos de plantación	30.000€

**2 puntos**

2.- Calcular la puntuación para la concurrencia competitiva y el importe estimativo de subvención de la adquisición de un tractor con cabina para el mantenimiento de dicho viñedo, dispone de un presupuesto de 90.680€ + IVA y potencia de 110 cv.

**1 punto**

3.- Calcular la cuantía de indemnización de las ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas de montaña y en zonas con limitaciones naturales significativas distintas a las zonas de montaña, considerando las premisas del enunciado y los siguientes condicionantes: distancia de la explotación a carretera comarcal 1.2km. y que el número de personas dependientes económicamente de la persona titular incluyendo a esta es 3.

**1 punto**

4.- Calcular las ayudas de agroambiente y clima.

**1 punto**

5.- Describir el procedimiento de tramitación que debiere realizar para acogerse a las ayudas contempladas en el Real Decreto 1075/2014, de 19 de diciembre, considerando que tiene intención de adquirir derechos de Pago Básico.

**1 punto**

6.- Asesorar a la persona joven en las siguientes cuestiones prácticas: labores preparatorias, abonado de fondo y mantenimiento, elección de variedades, marco de plantación, sistema de conducción, labores comunes durante el ciclo de cultivo.

**1 punto**

7.- Definir las estrategias para el control de las Plagas y enfermedades más comunes siguiendo los modelos de Producción Integrada, calendario de tratamientos según estados fenológicos.

**1 punto**

8.- Definir las necesidades de maquinaria y aperos para realizar un correcto mantenimiento del viñedo. Considerando el modelo de Producción Integrada y teniendo en cuenta que la vendimia la realizará una bodega externa mediante contrato.

**1 punto**

9.- Organización práctica de la vendimia, producciones medias estimadas, criterios para la toma de decisión de la fecha de vendimia.

**1 punto**